

# Bero eta heze haserreak



TESTUA ETA ARGAZKIA:

**Jakoba Errekondo**

[jakoba@bizibaratzea.eus](mailto:jakoba@bizibaratzea.eus)

Urteko egun luzeenetan gaude. Eguzkia ateratzetik sartzera ia hamabost ordu eta erdi. Bero zakarrak eta ekaitzen hezetasuna. Onddo eta perretxiko sasoi; ederki gozatu ditut dagoeneko urteko lehenak.

Onddo eta perretxikoak ez dira soilik gure platererako bidea egiten dutenak. Badira beste onddo eta perretxiko batzuk zeinak plater bererako bidea egin behar duten zenbait barazki eta fruituri eraso eta alferrik galarazten dituztenak: landareen gaitz dira. Izadiaren zikloen parte diren eran, naturalak dira, baina erasotzen dieten landare horien mozkinen beha daudenentzat kalte izugarria sor dezakete.

Onddo eta perretxikoeak sortzen dituzte landutako landareen gaitzen hamarretik bederatzia. Gaitz horiei aurea hartzeko bi bide ditugu: beroa murriztu edo hezetasuna gutxitu. Bizi eta hedatuko bada, biak behar ditu onddo-perretxikoak. Hark eragingo duen gaitzari aurea hartzeko, bietakoren bat ala biak atzeratu behar. Giroari beroa kentzea ia ezinezkoa denez, hezetasuna nola borrokatu burua berotu behar.

Lurra lehortuz ekin: karea, errautsa, dolomita, simaurra, luarra edo hareana nahasi. Lurra lehortzeko beste era bat altxatzea da: ildo-bizkarrak edo mendixkak egin edo taulenak betirako goratu, edozein materialekin ertza antolatu eta lurra altxa. Ondorengo lana izango da gaitzen aurka landarea ahalduntzea: landatzean egiten den zuloan, asun zarba (*Urtica dioica*) ebaki berriak jarri, eta tarte handia eman, batetik bestera eguzkia lurreraino sar dadin eta lan-



Zurinak jotako haritza.

dareak ere goitik behera berotu ditzan. Gero etorriko dira landareari berari emateko gaiak. Landarearen azala sendotu eta lehortzea da helburua. Horretarako landare urak erabili: azeribuztana (*Equisetum arvense*), larranbiloa (*Matricaria chamomila*), lapa-belarra (*Arctium lappa*), kaputxina (*Tropaeolum majus*), mota-belarra (*Tanacetum*

*vulgare* eta *Tanacetum cinerariifolium*) edota salbia (*Salvia officinalis*). Beste hauek erantsi ur horiei: ur oxigenatua, sodio bikarbonatoa, esnea, gazura edo jogurta. Sufrea eta salda bordelesa ere onak dira, baina, inorganikoak izanik, ez dira egokienak. Buztin bentonitikoa eta diatomeen lurra ere eraginkorrak dira, silize ugari baitute. ■